

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



EREÑOTZU LASTERKETA

Gaur egingo da auzotarrekin bilera

Gerturatzten ari da Ereñotzuko Mendi Lasterketa, eta horri begira, bilera deia egin die auzotarrei, antolakuntza taldeak. Gaur izango da, arratsaldeko 19:00etan, Auzo Etxeko aretoan. Bertan ariko dira, lasterketaren eguneko ekintzei edota boluntarioen antolaketari buruz, besteak beste. Auzotar guztiei luzatu diete gonbitea, bertaratzeko; eta bereziki, aurreko urteotan boluntario lanetan aritu direnei, eta aurten ere laguntzeko prest daudenei. ||

ASTIGARRAGA IPUIN KONTAKETA

Amaia Puin gaur, liburutegian

Amaia Puin kontalariak *Basoko ipuinak* izeneko saioa eskainiko du gaur, 18:00etan Udala Liburutegian, 3 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta. ||

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Gazte kanpaldira, 2003-2006koak

Gazte kanpaldia antolatu du Xaguxarrek, aurten ere; eta jakinarazi du, 2003-2006 urteen artean jaiotakoak joan daitezkeela. Hortaz, 2007 urtekoek, 6garren mailan daudenek, ezinongo dute. Aurreko urtean eginiko aldaketarekin jarraituko dute, nahiz eta leku batzuetan informazioa oker zabaldu den. ||

HERNANI LITERATURA

Liburu aurkezpena bihar, Diosdadok

Nahikari Diosdado idazle hernaniarrak, *Desollada* eta *Prácticas Mágicas* liburuen aurkezpena egingo du bihar, 18:00etan, Udala Liburutegian. Lehenengoa helduentzako beldurrezko eleberria da; bigarrena, atso magikoak dituen fantasia eta umorezko eleberria, gazteentzako. Biek berdintasunaren aldeko borroka ezberdinekin bat egitea dute helburu. Diosdadorekin batera, Alicia Pérez Gil idazlea egongo da, eta *Lectura sabia* tailerra emango du gero. Liburuak erosteko aukera izango da bertan. ||

HERNANI PLENOA

Hernanin Zero Zaborren mozioa onartu da

Udal Gobernuak eta Orain Hernanik aldeko botoa eman zuten, eta EAJ eta PSE-EEK aurkakoa. 2018ko gerakinaren gastu proposamenak ere onartu ziren, oposizioaren aurkako botoekin.

HERNANIKO Udalak onartu egin zuen, Hernanin Zero Zaborrek aurkeztu zuen mozioa. Bertan eskatzen zen, Hernanin hondakin organikoak, «hernaniarren esku egotea. Erabat logikoa da Hernaniko Udalak erakitzea urtean 2.000 tona organiko konpostatuko lukeen planta. Udalari eskatzen diogu irmo eutsi diezaiola bere asmoari; eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, berriz, bere erabakia alda dezala, konpost plantak erakitzeke baimena ukatu ondoren», adierazi zuten taldeko ordezkariak. Udala Gobernu taldeak eta Orain Hernanik aldeko botoak eman zituzten, hamar guztira, eta aurka agertu ziren EAJ eta PSE-EEren lau ordezkariak.

Andoni Amonarraiz alderdi jeltzaleko bozeramailearen hitzetan, «hondakinen kudeake-

ta ez da Udalaren eskuduntza». Bestetik, ez du ulertzen Udala zergatik ez den San Markoseko Komunitatetik irten, gehiengo edukita azken bi legealdietan. PSE-EEK bozeramaile den Ricardo Crespok, bide beretik jo zuen, ezezkoa arrazoitzeko.

Pistaren egokitzapena, kultur ekitaldiaterako

Gainerako gaien artean, kreditu gehigarriaren aldaketaren alde Udala Gobernuak bozkatu zuen, eta oposizioa aurka agertu zen, bost botorekin. Hernaniko Udalak 3,7 milioiko gerakina izan du 2018an, eta diru horrekin ekingo diren proiektuak azaldu zituen Luis Intxauspe alkateak. Besteak beste, kiroldegiko lehenengo pistaren egokitzapena nabarmendu zuen, kultur ekitaldiak bertan egin ahal izateko. Frontoia ere margotuko



Hernanin Zero Zaborreko ordezkaria, mozioa irakurtzen.

da, ibilgailu elektrikoa erosiko da, eta Santa Barbarako harrobiaren poriektura ere bideratuko da dirua. «Batzuk 2019ko aurrekontura inorporatuko dira, eta besteak 2020kora».

Amonarraizek ez zuen begi onez ikusi proposamena: «inbertsioen %26a bakarrik gastatu duzue, eta hurrengo kor-

porazioari esaten diozue non gastatu behar duen. Proposamenen %9a bakarrik egin eta ordaindu dituzue». Crespok eta Orain Hernaniko Jaione Aris-tregik, Udalaren kudeaketa kaxkarrak azpimarratu zuten, ezezkoa argudiatzerakoan. «Ez du konfiantzarik ematen», gaineratu zuen Crespok. ||

HERNANI PSE-EE

«Gakoa partehartzean dago», dio PSE-EEK

Hernaniko PSE-EEK eskerrak eman nahi dizkie alderdia bozkatu dutenei, eta datozen udal hauteskundeetan garrantzia azpimarratu du. «Eskuin atzerakoia denon artean geratu dugu».

«A ze hauteskunde garaia! Ez gara hauteskunde orokorretatik irten eta orain udal eta europar hauteskundeetan murgilduko gara», dio Hernaniko PSE-EEK, bere azken prentsa oharrean. Alderdi sozialistak balorazio orokorra egin du, eman diren emaitzen inguruan eta datozen hauteskundeetarako. «Denon artean, eskuin atzerakoia gelditu dugu, eta oposizioa bidali ditugu. Horrek politika aurrerakoi eta sozialeraino jarraitzea suposatzen du».

Ricardo Crespo bozeramaileak, alderdiaren boto emaileak eskertu nahi izan ditu. «Gugan konfiantza jarri duten 1.796 hernaniarrei, eskerrak eman nahi dizkiet. 725 boto berreskuratutako ditugu. %67,69ko igoerarekin, gehien hazi den alderdia izan gara».

Baina datorrenari begira jarri dira sozialistak. «Maiatzaren 26ko hauteskundeak dira, zuzenean gehien eragiten digutenak. Bertan erabakiko da adibidez zein kale asfaltzen

den edo zein ez, dirua nola banatu herriko talde desberdinen artean, aparkalekuen arazoari konponbidea jartzeko zer egingo dugun edo berdin jarraituko dugun, zerbitzu publikoetan gastua igoko den, industrialdeen aukerak aprobetxatuko ditugun...».

Hernaniko hauteslekuak berrantolatu behar direla ere eskatzen du, «bestela arazoarekin jarraituko dugu. Batzuetan zaila da, baina arazoak eta ilara luzeak sortu dira boz-

kalekuetan, eta haurreskola-koa kaosa da. Alkateari antolatzeke eskatu genion, baina ez zigun kasurik egin».

Sozialisten bozeramailearen ustez, pasa den igandeko hauteskundeak erakutsi dute partehartzea altua izan daitekeela. «Ea gai garen partehartze hori mantentzeko. Berdin da nori ematen zaion bozka, baina ez baduzu bozkatzeko besteak egingo dute politika zure orde, eta zure orde erabakiko dute», adierazi du. ||

Robarte una noche
Zinea solasaldiarekin
FERNANDO VERA
TELMO IRURETA
Maiatzak 8 _ 19:00 _ Biteri
Solasaldia elebietan / Zeinu hizkuntza
Aldi bateko itzulpena
Antolatzailea: Koxka Elkarte

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

AKELENEA
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian
Menua
3 hasierako
Arraia
Haragia
Postrea, ogia, kafea
Koldo eta Fina
27€ (BEZ barne, edaria aparte)
Enkarguz
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333



GAUR Kantauri isurialdean lainotuta egongo da, behe-lainoekin, eta ez da bazterten tarteka euri txikia edo zirimiria egitea. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperatura maximoa jaitsiko da. **Min.10° / Max.14°**



BIHAR Lainoak nagusituko dira eta eguneko erdialdeko orduetan euria iritsiko da, baina oro har gutxi egingo du. Iparraldeko edo ipar-mendebaldeko haizearekin, baliteke tenperatura zerbait jaitea. **Min.9° / Max.13°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI JAI BATZORDEA



Jai Batzordea, Askekintza eta Sokamuturra Bai taldeko kideak, aurkezpenean.

Hernaniko jaietan animalien erabilpena, eztabaidagai

Jai Batzordeak bultzatuta, mahai ingurua antolatu da maiatzaren 9an, Biterin, Sokamuturra Bai eta Askekintzaren partehartzearekin.

HERNANIN azken urteetan eztabaidagai izan da animalien erabilpena jaietan, eta badira urte batzuk sokamuturraren inguruan jarrera desberdinak azaldu direla. Hone-la, eztabaida herrira zabaltzeko asmotan, mahai ingurua antolatu da datorren maiatzaren 9an, osteguna, 19:00etan Biteriko areto nagusian. Jon Odriozola moderatzaile lanean jarrita, Askekintza eta Sokamuturra Bai taldeak ariko dira, euren iritziak eta ikuspuntuak azaltzen. Aurrez adostutako galderak erantzungo dituzte, eta saioaren hasieran, bi taldeek prestatutako bi bideo laburrak bistaratuko dira:

Gurean eta Toro en la piel.

Mahai inguruaren bukaran, herritarrek egindako galdera eta zalantzak erantzuteko tartea izango da.

Adostasunera iristea, nahia

Bi taldeek hartu zuten parte, asteartean egin zen aurkezpenean, eta euren ikuspuntuak azaldu zituzten. Sokamuturra Baiko kideak idatzi bat irakurri zuen, non azaltzen duten sokamuturra eta, honekin batera, jaietan dauden animalien erabilera ezberdinak defendatzeko sortu dela taldea. «Ez gara sokamuturra mantentzearekin konformatuko, indartu eta hiru egunak be-

rreskuratzea da helburua».

Askekintzakoek ere hartu zuten hitza. «Especialista gara, eta animalien erabilpenaren aurka gaude. Animalien erabilpena jaietan kentzeko lanean jarraituko dugu».

Hori bai, bi taldeak adostasunera iristeko hainbat bileretan ari dira parte hartzen Jai Batzordearen barruan, eta bien arteko errespetua eta hitz egiteko nahia agerian geratu zen aurkezpenean.

Jai Batzordetik, 2019rako proposamena, ekainak 25 eta 26an sokamuturra mantentzea da, eta horrekin batera, ordezko jarduerak antolatzea, 26an eta 27an. ||

ASTIGARRAGA ORNITOLOGIA

Astigarragako hegaztiak ezagutuko dituzte, lau ornitologia ibilalditan

Lehenengoa etzi egingo da, larunbatean, 09:00etatik 11:00etara Ergobiako zubian. Hilaren 11an, 18an eta 25ean egingo dira, beste hiru ibilaldiak.

ASTIGARRAGAN ikusi daitezkeen hegazti motak zeintzuk diren jakin nahi duenari, aukera ezin hobea eskaini diote, Itsas Enara Ornitologia Elkarrekin eta Haritzalde Naturzaleen Elkarrekin. Lau ibilaldi ornitologiko antolatu dituzte maiatzaren 2a, Astigarragan.

Lehenengoa etzi izango da, larunbatean, Ergobiako zubitik abiatuta, 09:00etatik 11:00etara. Hegaztien izenak eta bere

ohiturak ezagutzeko aukera izango da bertan. Ez da izena eman behar, eta nahikoa da bertara azaltzea. Adin guzti-etako herritarrei dago zuzenduta, baina hurrek heldu batekin joan behar dute. Gainera, edukiz gero, prismatikoa eramatea gomendatu dute, hegaztiak ikusteko.

Ez da Ergobiako zubitik abiatuko den ibilaldi bakarra, maiatzaren 11n bertan jarri

baitute bigarreneko hitzordua, ordu berean.

Santiomendin, maiatzaren 18an eta 25ean

Hileko lehendabiziko bi larunbatetan ezin duenak, izango du aukera hurrengo bi larunbatetan ere. Maiatzaren 18an eta 25ean, Santiomendiko ermitaren aparkalekuan bilduko dira, 09:00etan, hegaztiak ezagutu eta ikuskatzeko. ||

PUBLIZITATEA | AROZA TABERNA



Aroza taberna jolastoki, larunbat arratsaldean

Larunbatean Txantxilla 4ko Aroza tabernan haur jolasak antolatu dituzte etxeko txikien gozamenerako. Arratsaldeko 18:45etan hasi eta 20:00ak arte, globoflexiarekin, aurpegi margoketarekin, joku-kantariekin... disfrutatzeke aukera izango dute gerturatzaren diren haurrek.



Txantxilla, 4 behea. Hernani. Telf: 943 82 93 76

ARANO-GOIZUETA UDALA

Helpbidearen berri gaur, zuzenean

Helpbidearen berri zuzenean jakiteko, bilera egingen da gaur, Aranoko eta Goizuetako udaletxeetan. Aranon 17:30etan izanen da, eta Goizuetan 19:30etan. Baserritar edo etxebizitza sakabanatueta-ko jabe edo bizilagunak bertaratzeko komenigarria da. ||

HERNANI UDALA

Energiaren kontsumoari buruz, saioak

Asteartean hasiko dira energiaren kontsumoari buruzko saioak, eta bihar da tailerrean apuntatzeko azkenengo eguna. Horretarako, mezua bidali daiteke oihane@izadi21.eus helbide elektronikora, edo 686 427 565 telefonora deitu. ||

HERNANI UDALA

Kultura batzordeak bilera, gaur

Kultura batzordeko ezohiko bilera egingo da gaur, 18:00etan, udaletxeke 1go bilera gelan, laugarren solairuan. Hauek dira, landuko diren gaiak: Auzo elkarteentzat dirulaguntzen proposamena, Euskadiko Ferialari Autonomoen Elkargoarekin hitzarmena, Biteriko ikastaroetako egitarau eta aurrekontuak, auzoetan haur tailerentzako egitarau eta aurrekontuak, Udaparketan 2019, *Hernanin ikusiyak* erakusketa, eta San Joan jaien kartel lehiaketaren berri ematea. ||

HERNANI ZILEGI ESKOLAK

Portu auzoan emango dira eskolak bihar

Herritar gehiagorengana iristeko asmoarekin, auzoetara eramango ditu Zilegi Eskolak, AEK euskaltegiak, maiatzetik aurrera. Hori horrela, Portu auzoa izango da Zilegi Eskolak bisitatuko duen aurrenekoa. Bertan, Plaza Dantzen ikastaroa egingo dute bihar, 10ean eta 17an; 19:00etatik 21:00etara izango dira, elkarrekin lokalean. Saioak debalde izango dira, baina plaza mugatuak izango direnez (15 lagun gehienez), aurretik izena eman beharko da: 663 04 33 14 telefonoan, edo zilegieskola@aek.eus helbidean. Aurrerago, ekainaren 7 eta 14an, makillaje ikastaroa egingo dute leku berean. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukalde, sala eta komuna. Egoera onean. Deitu: 628 116 949

Itziago Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiojologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)